


## Lana / La obra

Nobela honetan Jon Arretxe idazle bidaiariak jaioterrian kokatu du trama: Basaurin. Hasiera-hasieran ageri zaigu konkistatu beharreko altxorra, lapurreta baten fruitu eta urmael batean gordeta omen dagoena. Altxor hori eskuratzeko ahaleginean lehiatuko dira nobela honetako pertsonaia nagusiak. Azpijokoz, intrigaz, gezurrez betetako trama honetan, ezer ez da ematen duena. Zinema giroko sekuentziazio batekin, erritmo lasterrean garatzen da haria eta jazarpen grotesko batekin bururatzen da.

Arretxek hain ondo deskribatzen duen submundu transgresore horretako jendea da Arrutiren banda osatzen dutenak: Urrutxurtu, Delgado eta Ereño, Arruti beraz gain. Laurak Basauriko institutuan elkarrekin ikasitakoak, Hego Uribeko droga trafikatzailerik handienetakoaren itzalean ibilitakoak aspalditik. Panorama osatzen dute neska mulata batek eta eskultore intrigazale batek, arrazoi ezberdinengatik bandakoen xede bihurtu direnak nahita edo nahi gabe.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Arrutiren banda**
Egilea / Autor: **Jon Arretxe**
Saila / Colección: Uzta gorria, 21
ISBN / EAN: 978-84-9109-247-6
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / N° páginas: 160
Formatua / Formato: 20,5 x 13,5 cm

9 788491 092476

## Egilea / El autor

**Jon Arretxe (Basauri, 1963).** Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta Piano eta Kantuko ikasketak ere baditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, eta opera kantaria ere bada. Sortu dituen hogeita hamar bat liburuen artean bidaia-narrazioak (*7 Kolore*, *Tubabu*, *Oroituz*, *Griot*...) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Xahmaran*, *Tangerko Ametsak* eta Toure ikertzailearen sailekoak: *19 Kamera*, *612 Euro*, *Hutsaren itzalak*, *Estolda jolasak* eta *Sator lokatzak*.

Nobela beltzaren eremutik irten gabe esku artean duzun *Arrutiren banda* honekin beste bide bati ekin dio.

Egileak esker onez jasoko lituzke era guztietako iritziak liburu honi buruz:
jonarretxe@yahoo.com
www.jonarretxe.net